

4.7. Programaren antolaketa: erakunde eta eginkizunen mendekoa

4.7.1. Programa, erakundeen mendekoa

Lurralde historiko mailan, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendutako Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren mende dago.

Kontsortzioak Programaren deialdi publikoa egiten du, toki erakunde eta zerbitzuak prestatzen dituzten enpresei zuzendurik.

Aurkeztutako adierazle sistemak irizpideak biltzen ditu, eta Kontsortzioak irizpide horiek kontuan hartzen ditu programa udalerri, mankomunitate, eta abarrean ezartzeko, edo hezitzaile edo lanegun kopuru zehatza emateko, alderdi estrategiko eta programa udalean garatzeko planarekin batera.

Programa jarri nahi duten udalerrien jarduera Kontsortzioko Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programan ezarritako parametroen barruan eta lurralde historikoan programa garatzeko plan eta alderdi estrategikoetan egongo da (kudeatze plana).

Bai Programa eredia, bai alderdi estrategikoak eta baita programa garatzeko plana ere udalerrietan edo toki erakundeetan adosteko joera dago, eta gero udalerri bakoitzeko errealitatera moldatuko dira.

Maila lokalean (udalerri mailan kasu guztietan, oraingoz), gaur egun, Programa ezartzen duen udal departamentuaren mende dago, gehienetan Gizarte Zerbitzuetako Departamentua eta batzuetan Hezkuntza edo Kultur Departamentua.

Epe luzera, Kontsortzioak duen egituraren antzekoa garatzea nahi dugu maila lokalean ere (departamentu berberak osaturik, eta maila politiko bat eta beste bat tekniko duena); Inguru Irekiko Hezkuntzako Udal Plana horren mende egongo da eginkizunei dagokienez, eta udal plan horren barruan Gizartean eta hezkuntzan Esku hartzeko Plana eta Kontsortzioak sustatutako beste programa batzuk.

Helburu hori kontuan hartuta, ez dago inolako oztoporik Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Kontsortzioa osatzen duten departamentu kideetako edozeinek hartzeko. Dena den, segituan adieraziko dugunez, kaleko hezitzailearen irudia, dituen eginkizunei begira, komunitateko gizarte zerbitzuetan kokatu behar da beti.

Kontsortzioak bere gain hartzen du kaleko hezitzaileak kontratatzeak kostuaren eta udalerriko programaren jarduerak sortzen duten kostuaren % 60, eta programaren kostu orokorrak ere ordainduko ditu (koordinatzailea, agiri eta material orokorrak egitea, prestakuntzarako ekintzak, ...).

Udalerriek ordainduko dute geratzen den % 40, Kontsortzioari egindako diru ekarpenaren bidez, eta lokalak edo bitarteko materialak ere eskainiz.

Epe laburrera, udalerriak Kontsortzioko Gobernu Batzordearen kide bihurtu litezke. Egun, udal programen arduradunak Batzorde Teknikoaren bileretan –Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programarekin zerikusia duten bileretan– parte hartzen hasiak dira.

Osakidetzak Kontsortzioan parte hartzea ere hausnartzen ari da (lehen mailako arreta).

4.7.2. Kaleko hezitzaileak komunitateko gizarte zerbitzuetan sartzea, eginkizunen arabera

4.7.2.1. Inguru kontzeptuala

Programa maila lokalean hartzen duen udal departamentua edozein dela ere, kaleko hezitzaileak, beren eginkizunak kontuan hartuta, komunitateko gizarte zerbitzuen barruan daude, eta, zehazkiago, Gizarte Laneko Unitateetan .

A) Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa komunitateko gizarte zerbitzuetan kokaturik dago

Hori erabakitzen bultzatu gaituen gogoeta konplexua da.

- Lehenik eta behin, Programa komunitateko gizarte zerbitzuetan sartzea ez da Programatik bultzatutako eskuartzearen oinarritzko estrategiaren ondorioz.

Programan, eskuartzearen oinarritzko estrategia inguru irekiko hezkuntza da, eta estrategia horretan parte hartzen dute gizarte zerbitzuen sistemak, hezkuntza sistemak, kultur sistemak (hezkuntza ez formala), eta baita osasun sistemak ere (osasun heziketa).

Eskuartzearen oinarritzko estrategia aintzat hartuko bagenu, programa egokiago kokaturik egongo litzateke, beharbada, hezkuntza sisteman (ikastetxeetan) edo udaleko Kultura Departamentuan (hezkuntza ez formala).

- Programa komunitateko gizarte zerbitzuetan kokatzea ez da normalizazio eta gizarteratze printzipioen ondorioz.

Herritar guztientzako irtenbideak (normalizatuak) emateko beharra dagoela, eta ikastetxeetatik, hezkuntzako baliabide ez formaleetatik, eta abarretik aniztasunari egokituak irtenbideak izan behar dutela aintzat hartzen badugu, hobe litzateke, agian, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin lan egiten aditua den hezitzaile bana zerbitzu sistema horietako bakoitzean jartzea. Nolanahi ere, hobe litzateke gaur egun dauden profesionalak trebatzea aniztasunera moldatzeko neurriak har ditzaten, hori baita, hain zuzen ere, gizarte zerbitzu sistemaren helburuetako bat.

- Era berean, ez da arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin, erakundearen artean eta departamentuen artean, esku hartzeko behararen ondorioz.

Ildo horretan, hobeto legoke Programa, beharbada, gaur egun dauden edo egon litezkeen udaleko Gazteriaren Departamentuetan, horiek, gizarte zerbitzuek ez bezala, adingabe eta gazteei, eta soilik horiei, eskaintzen baitiete arreta, adingabe eta gazte guztiei bada ere, eta puntu horretan, gizarte zerbitzuek ere ez bezala.

- Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa komunitateko gizarte zerbitzuetan kokatzeko erabakia programaren xedea (helburua eta hartzaileak) aintzat hartuta, eta komunitateko gizarte zerbitzuek xede bera dutela ikusita hartu da: alegia, baztertze edo/eta desabantaila egoeran dauden pertsonak eta taldeak gizarteratzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Jadanik adierazi dugunez, gizarte zerbitzuen helburua gizarteratzea da, ez gizartean txertatzea. Gizartean txertatzea, lana, etxebizitza, kultura, hezkuntza, osasuna, informazioa, e. a. eskuratzea gainontzeko zerbitzu sistemen ardura da.

Baztertze egoeran dauden pertsonen eta taldeen gizarteratzea gizarte zerbitzuen sistemak eta gainontzeko zerbitzu sistemek elkarren artean duten erantzukizuna da.

Gizarte zerbitzuetatik egin beharreko lana hurrengo da:

- aipatutako pertsona eta taldeekin alde aurreko lana egitea, haien gizarteratzea errazteko, modu honetan:
- informazioa eta orientazioa emanda,
- gizarteratzeko euskarri iragankorrak edo euskarri egonkorak eskainita (diru laguntzak, etxez etxeko laguntza, larrialdietarako etxebizitzak, eguneko zentroak, haurtzaindegia, ...),
- haien gaitasunak hezkuntza eta terapia zerbitzuen bitartez garatuz,
- eta haien premiei erantzuna emateko gaitasuna bultzatuz (autolaguntza).
- aldi berean, baztertze edo desabantaila egoeran dauden pertsonen edo taldeen zuzendurik, zerbitzu sistemetako baliabideen egokitzapena bultzatzea,
- eta baliabideekin batera bitartekotza lana egitea gizarteratzearen alde, igarotzeko proiektuen barruan, baztertze egoeran dauden pertsona eta taldeak normalizatutako baliabideetara (herritar guztiei zuzenduak) igarotzeko

Lan hori, hain zuzen ere, kaleko hezitzaileak egiten du, gizarteratzeko euskarriak ematea izan ezik.

Ikus daitekeenez, esku hartzeko estrategiek inguru irekiko hezkuntza baino esparru zabalagoa hartzen dute, eta komunitateko gizarte zerbitzuetako oinarritzko lau alderdiak hartzen dituzte.

Kaleko hezitzaileek zeharkako lana egiten dute komunitateko gizarte zerbitzuetako arretari dagokionez (lau programa), adingabe/gazte eta inguruneen eskaintzen baitiete arreta, beste hainbat profesionalarekin batera.

Arrisku egoeran dauden familiarekin eta adingabe/gazteekin esku hartzeak arreta dimentsio guztiak garatzea eskatzen du, euskarri ekonomikoak (GGDS, GLL, ...) eta bizikidetzaren alternatibak (familia eta elkarbizitza programa) barne.

Azkenik, gizarte zerbitzuen lanak –beste zerbitzu sistemen lanak ez bezala, praxian– familia edo bizikidetzaren unitateak hartzen du, eta, hortaz, adingabe eta haien familiarekin esku hartzea dago era koordinatuan eta era globalean.

Bestalde, Programa udalerrietan kokatzen da funtsean, eta beti maila lokalean.

Programaren helburua arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak ingurune komunitarioetan txertatzea izateak eskatzen du Programa maila lokalean ezartzea, eta, horrez gain, maila lokalean diharduten sistemek esku hartzeko koordinatzea (auzo, barruti, udalerri, mankomunitatea).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Kontuan hartu behar da maila lokala eta udalerria ez direla gauza bera.

Zenbait kasutan egokia izango da Programa udalerrian ezartzea, beste batzuetan, berriz-landu guneetan, bereziki-, udalerri batean baino gehiagotan, mankomunitateak sortuz.

Bestalde, zenbait zerbitzu auzoetan edo barrutietan garatu beharko dira; beste batzuk, aldiz, udalerri osoa hartuta, eta, azkenik, udalerrien arteko lankidetzan eskaini beharko dira beste zenbait, egokiagoa izango baita (adibidez, eskualde mailako lan munduratzeko proiektuak).

Hauxe dugu beste adibide bat: orokorrean komenigarria izango da hezkuntza ez formaleko zerbitzuak auzo edo barrutiaren barnean ematea (astialdiko eta hezkuntzako jarduerak, ...); baina, bestalde, garrantzitsua da auzo edo barrutietan bizi diren adingabe eta gazteek hiria ezagutzea, eta, hiria kontuan izanda egindako proiektuen bitartez, garatzea. Horrela ez balitz, zenbait auzo edo barrutitako isolatze prozesua indartuko genuke, eta kontrakoa da egin nahi duguna.

B) Kaleko hezitzaileak, beren eginkizunen arabera, gizarte laneko unitateetan kokatu izanaren arrazoiak

Familia edo bizikidetzak unitatea eta auzoa edo barrutia esku hartzeko oinarritzko errealitateak dira, eta hori da hezitzaile bakoitza, hezitzaileen eginkizunen arabera, gizarte laneko unitate batean kokatzearen arrazoiak.

GLU bakoitzeko gizarte langilea da familiaren ikuspegi orokorra duena, familiarekin harreman estu eta jarraitua daukana, eta komunitateko gizarte zerbitzuei lotutako profesionalak familiarekin esku hartzea koordinatzen duena (kaleko hezitzaile, familia hezitzaile, familia terapeuta, etxeko laguntzaileak). Era berean, GLUko gizarte langilea da lurraldearen ikuspegi orokorra duena.

Hezitzaileak, hain zuzen, ikuspegi hori garatu behar du; gainera, GLUko taldea eratu behar da pixkanaka, eta taldeko guztiek elkarren arteko ikuspuntua izan beharko dute lurralde, lehenetsun, arazo, garatu beharreko proiektu eta abarri buruz. Talde hori eratzeak leundu dezake, neurri batean, gizarte langileek beren lanean duten bakardade sentazioa eta, bestalde, lurraldean egiten den lana indar dezake eta zerbitzuak sakabanatu eta deszentraliza ditzake.

Dinamika horren barruan, eskuartzearen lurraldetasuna (profesionalak zonetan banatzea), zerbitzuak sakabanatzea (profesionalak zonaldeetan presentzia fisikoa izatea –kaleko hezitzaileen kasuan ziurtaturik dago–), eta deszentralizatze eraginkorra lortzea (lurraldean hezkuntzan dihardutenek –boluntario, profesional, erabiltzaile eta abarrek– auzo edo barruti mailako proiektuen diseinu, garapen eta ebaluaketan parte hartzea) izango litzateke helburua.

4.7.2.2. Inguru eraginkorra

Gorago esandakoa kontuan hartuta, kaleko hezitzaileak, haien eginkizunen arabera, komunitateko gizarte zerbitzuetan, zehazki GLUn, epe laburrean sartzea bultzatu nahi dugu, jarraian aurkezten dugun proposamenari jarraiki:

Kaleko hezitzaileak gizarte laneko unitateetan sartuko dira, haien eginkizunen arabera (udalerri batzuek GLU bakarria daukate).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Hasierako banakako ebaluaketa, banakako proiektuen diseinua eta bukaerako ebaluaketa egingo dira familiarekin, edo adingabe edo gaztearen bizikidetzat unitatearekin esku hartzen duen gizarte langilearekin batera. Argi dago, hainbat arrazoï direla eta, beste hezitzaile batek eskuartzearen ardura bere gain hartzea komenigarria bada, kasuaren ardura duen gizarte langile eta esku hartzea bere gain hartuko duen kaleko hezitzailearen artean izango dela harremana.

Familiarekin beste profesional batzuek esku hartzen duten kasuetan (familia hezitzaile edo terapeutak, etxeko etxeko laguntzailea, ...), profesional horiekin batera egingo dira ebaluaketa eta programazioa.

Adingabe edo gaztearen familiarekin esku hartzerik dagoenetan, adingabe edo gaztearen hezkuntzako proiektua familiarekin esku hartzeko proiektuaren barruan sartu beharko litzateke.

Epe ertainean, komenigarria izango litzateke GLU bakoitzeko hezitzaile bat gutxienez egotea.

Kaleko hezitzaileek eta gizarte langileek lanaldietako ordutegi desberdinak dituztela kontuan hartuta, biak bulego berean egoteak komunikazio informala bultzatuko du. Alderdi horrek berak GLU eta departamentuaren artean komunikatzeko bide formalak sortzea ere eskatzen du.

Edonola ere, kaleko hezitzailea GLUari loturik egoteak ez du oztopatu behar beste hezitzaile batek adingabe edo gazte jakin batekin esku hartzea horren beharra sumatzen denean, edo beste hezitzaile batzuekin lankidetzan taldeekin esku hartzea (beste gizarte laneko unitate batzuetako edo beste udalerri batzuetako hezitzaileekin). Kontuan hartu behar da, GLUk eta ikastetxeek hartutako lurraldearen artean ez dagoela elkarrekikotasun zehatzik.

Gizarte langile eta hezitzaileen arteko harreman estua mesedegarri izan daiteke, inguru kontzeptualean aipatutakoez gain, hezitzaileak hobeto moldatzeko, bi profesionalek familiak eta lurraldea sakonago ezagutzeko, eta gizarte langileek eta hezitzaileek esku hartzen dutenean, bat etortzeko.

Gogora ekarri nahi dugu bere garaian adierazitakoa, alegia, Gizarteratzeko Gutxienezko Diru Sarrera (GGDS) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzen zituzten arrisku egoerako adingabe edo gazteen familiei lehentasuna emango zitzaizela esku hartzeko orduan.

Programa ereduaren ratioak jarri izanak eta hezitzaileen lana arrisku ertain-altuko egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendu izanak, eta, halaber, arrazoitutako kasuetan 11 urtekoak baino gazteagoak diren adingabeekin esku hartzen hastea gomendatu izanak erraztu dezakete kaleko hezitzaile eta gizarte langileen lana bateratzea.

Taldeak eta komunitateko eskuartzearen plangintza udalerri txiki eta ertainetan egin beharko litzateke, GLUren barruan edo departamentuko taldearekin (kontuan izan udalerri batzuek bi edo hiru GLU dituztela eta GLU bakoitzeko gizarte langile eta hezitzaile bana).

Udalerri handietan, taldekako eta komunitateko eskuartzearen plangintza departamentuko buruarekin batera egin daiteke (udal programaren arduraduna) edo bera ordezkatzeko duen pertsonarekin.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Dena den, onena litzateke taldekako eta komunitateko eskuartzearen plangintza GLUren barruan ere egitea (beti ere, proiektuek lurraldea soilik hartzen badute).

Kaleko hezitzaileak behar bezala sartzen ari dira, funtzionalki, komunitateko gizarte zerbitzuetan, udalerri txiki eta ertainetan bereziki, udalerri handietan arazoren bat egon arren. Udalerri horietan gizarteratzeko era alternatiboei buruz hausnarketa egitea beharrezkoa izan daiteke (Irun, Eibar, Donostia).

Azkenik, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa epe labur, ertain eta luzean bideratzeko, kaleko hezitzaileek parte hartzen dute udaleko ¹⁵ gizarte zerbitzuei lotutako beste profesional batzuekin batera, hau da, arrisku egoeran dauden familia eta adingabe/gazteekin esku hartzen duten profesionalekin batera; eta udalerrian ezarritako programaren alderdi estrategikoak lau urtean behin eta udalerrian ezarritako programaren garapeneko plangintza bi urtean behin egiten dute.

Programa ezarriko duen udal departamentu edo toki erakundeak Programa maila lokalean garatzeko plangintzaren alderdi estrategikoak jarri beharko ditu, Kontsortzioko alderdi estrategiko eta Planarekin batera.

Plangintza maila horretan dagoenean, komenigarria da politikariek ere parte hartzea. Lankidetzara beste udal departamentu batzuekin errazteko, Gizarte Zerbitzu Departamentuko politikari arduradunak programa guztiz onartzea funtsezkoa da; bestalde, lankidetzara hori politika mailan ere mantendu behar da.

Alderdi estrategikoek eta Programa maila lokalean garatzeko Planak, komunitatearen azterketaren eta ebaluaketan sintesiaren datuekin batera, udalerriak Programan parte hartzeko eskaera osatzen dute, Programa jadanik ezarrita dagoenean.

Amaitzeko, kaleko hezitzaileak, haien eginkizunen arabera, komunitateko gizarte zerbitzuetan zehazki, eta udaleko Gizarte Zerbitzuetan, orokorrean, sartzea indartzearekin batera, udal programaren arduradunaren irudia indartzeko apustua egin da; izan ere, Programaren goi mailan jarriko baita irudi hori, Kontsortzioaren gerentzia eta hezitzaileen artean, alegia.

Helburua da Programaren arduradunak –Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko burua izango dena beti– Programa bere egitea, Programa ezartzean buru izatea, orokorrean bideratzea, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari eta beste udal alorrei –bereziki Kultura eta Gazteria Departamentuei– lotzea; Programa eta maila lokaleko beste baliabide batzuen kanpoko koordinazioa sustatzea, planifikatze sistemen ezarpena bultzatzea, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin esku hartzen duten profesionalekin batera prestakuntzako jarduerak garatzea; Programaren barruan, maila lokaleko proiektuen garapenerako finantzaketa iturri alternatiboak bilatzea, e. a.

Epe laburrean, garrantzitsua izango litzateke Programa gizarte zerbitzuetako departamentuetan sartzeko diseinu zehatza egitea, eta, departamentuen barruan, kaleko hezitzaile, gizarte langile, drogamenpekotasuneko teknikarien eta abarren artean barneko koordinazioa eratzea.

¹⁵ Udal gizarte zerbitzuak diogu, hainbat kasutan gizarte zerbitzu berezituak baitaude udaletxeek kudeatuta, Programari zuzenean lotuta daudenak, lanbide hastapen zentroak, kasu.

4.8. Programan sartzeko deialdia eta modua

4.8.1. UDALERRIAK EDO TOKI ERAKUNDEAK

Kontsortzioak Programaren deialdi publikoa egingo du, eta deialdi horretara Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerri aurkez daiteke. Eskuartzea burutuko den herriko edo lurraldeko udal edo toki erakundeak garatuko du Programa, Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioarekin batera.

Programa honetako Kontsortzioak ezarritako aurrekontu eta lehentasunen arabera, udalerri edo toki erakunde onuradunak hautatu ondoren, hitzarmena sinatuko da haiekin.

Udalerri bakoitzarekin sinatutako hitzarmenaren iraupena urtebetekoa izango da, eta lau urteko konpromisoa izango du; dena den, hori guztia Programaren garapena aurreikusitako helburuetara moldatzen den moduaren arabera izango da, bi urtean behin berrikusiko dena, eta Kontsortzio eta udaletako aurrekontuen arabera.

Konpromisoa lau urte igaro ondoren berritu ahal izango da, bi alderdiak ados jarrita, eta hurrengo puntuak bete ondoren:

- a) azkeneko lau urteetan egindako eskuartzearen ebaluaketa;
- b) komunitatearen azterketa; eta azterketa horren alderaketa egindako azken azterketaren datuekin;
- c) programaren alderdi estrategikoen eraketa, maila lokalean, hurrengo lau urteetarako; eta, era berean maila lokalean, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren garapenerako planaren eraketa, lehenengo bi urteei dagokienez.

Udalerriak edo toki erakundeak lehen aldiz eskatuko balu Programan parte hartzea, egin beharreko guztia eskaera orria betetzea izango litzateke; bertan ondorengo puntuak aztertuko dira:

a) Programa ezartzeko baldintza orokorrak

- Udalerriko biztanle guztiei buruzko datuak (Kontsortzioak berak erantsiko ditu datu horietako batzuk eskaeran)
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei buruzko datuak
- Adingabe eta gazteei zuzendutako baliabide komunitarioei buruzko datuak
- Adingabe eta gazteen taldeak, udalerriko geografi esparruak eta lehenetsitako premiak

Eskaera onartzen bada, kaleko hezitzaileek egingo duten komunitatearen azterketan sartuko dira datu horiek.

Azterketa egin ondoren, Programa ezartzeaz arduratuko den udal departamentuak, Programaren arduradunak erantzukizuna duela (departamentuko burua), maila lokaleko programaren alderdi estrategikoak eratuko ditu hurrengo lau urteetarako; era berean, gizarte mailan esku hartzeko programaren garapen plana eratuko du, lehenengo bi urteetarako.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

b) Maila lokaleko partehartzeari dagozkion baldintzak: udalbatza, Programa ezartzeaz arduratuko den departamentu eta udal baliabideen partehartzea.

Programa ezartzeko baldintzak

Eskaera onartzeko nahiz hezitzaileen lanaldiak esleitzeko ondorengo baldintzak aintzat hartuko dira:

A. UDALERRIAN DAUDEN PREMIEI ETA ERABILGARRIAK DIREN BALIABIDEEI DAGOZKIEN BALDINTZAK

1. 10.000 biztanle baino gehiago

Landa zonetan salbuespenak egon daitezke, beti ere programa, beste udalerri batzuekin mankomunitatean, epe laburrean garatzeko borondatea badago.

2. Premiek eta baliabideek duten lotura

2.1. Premiak

- Udalerri edo lurraldeko (aurreikusitako) haur eta gazte kopurua eta bilakaera.
- Adingabe eta gazteen arrisku egoera moldatzen duten hainbat karakterizazio orokorraren adierazleri dagozkion egoera (ikus karakterizazioaren adierazleak, adierazle sisteman).
- Faktore horiek adingabe eta gazteengan duten eragina (ikus eraginaren adierazleak, eta arazo eta hipotesiei lotutako adierazleak, adierazle sisteman).
- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteek eta haien familiek egindako eskaerak.

2.2. Baliabideak

- Zonan dauden haur eta gazteei orokorrean zuzendutako baliabideak, praxian beren jardueretan arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak hartzen dituztenak.
- Zerbitzuak erabiltzeari buruzko datuak:
- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteentzako kanpamendu eta udalekuetan parte hartzea ala ez
- GGDS eta GLL jasotzea
- Adingabe eta gazteek lanbide hastapeneko zentroetan, gizarte bermeko programetan, eta abarretan parte hartzea
- Garapen instrumentaleko talde espezifikoetan, laguntza geletan, eta abarretan sartutako adingabeak
- Osasun kontsultak
- Adingabe eta gazteak instituzionalizatzea

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- eta abar

2.3. Lehenetsunak

Premien eta baliabideen ebaluaketa kontuan hartuta, zenbait lehenetsun ezarri behar dira, hala nola:

- Esku hartzeko premia handiagoa hautematen den udalerriko geografi zonak
- Esku hartzeko orduan lehenetsi beharreko adingabe, gazte eta familien premiak

B. UDAL PARTEHARTZEARI ETA BALIABIDE KOMUNITARIOEN PARTEHARTZEARI DAGOZKIEN BALDINTZAK

Eskaera onartzeko, hurrengo baldintzak kontuan hartuko dira:

1. Udalbatzak Programa ezartzeko duen borondatea, Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Eredua ezarritako baldintzen arabera; halaber, Kontsortzioko koordinatzaileak ikuskatzea eta Kontsortzioak garatutako planifikatze sistema eta tresnak onartzea.

2. Programa garatzeko kostuei aurre egiteko beharrezkoa den aurrekontu saila esleitzea.

3. Hezitzaile taldeari bitarteko materialak esleitzea –lan egiteko tokia (m2, ekipamendua, ...), material suntsigarriak, jarduerak egiteko lokalak, e. a.–, eta diskriminazio positiboko neurriak hartzea, era horretan, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak kiroldegietara, kultur zentroetara, ... joan ahal izateko.

4. Aurreikusitako bezala, hezitzaileen taldea Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko lan eskemaren barruan, eta Kultura edo Gazteria departamentuekin sortutako koordinazio sistemaren barruan sartzea.

Zehatzago:

- a) Hezitzaileek parte hartzea Departamentuak, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin, epe ertain/luzera garatuko duen eskuartzearen plangintzan.
- b) Hezitzaileak gizarte laneko unitateetan kokatzea, haien eginkizunak kontuan hartuta.
- c) Harremanak:
 - plangintzako unitate nagusiarekin (Departamentua)
 - lurraldeko unitate eraginkorrekin (gizarte laneko unitateak, ...)
 - Programari bereziki lotutako udal kudeaketako gizarte zerbitzu bereziekin (gizarte larrialdietarako etxebizitzak, lanbide hastapeneko zentroak, ...), eta kontratatutako laguntza teknikoko beste zerbitzu batzuekin (familia heziketa eta terapia, etxeko laguntzaileak, ...).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- d) Kaleko hezitzaileen lan profilaren beste alderdi batzuk (beste betebeharrak eta eginkizun batzuk, ezagupenak, jarrerak, eskatutako eskarmentu eta prestakuntza,).
- e) Gizartean eta hezkuntzan Esku Hartzeko Udal Programaren arduradunak dituen zereginak.
- f) Kultura edo Gazteria Departamentuarekin aurreikusitako koordinazio sistemak.

5. Herrian dauden gainontzeko komunitateko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko sistemak, aurreikusitakoak direnak eta aurreko puntuan (4.) ez daudenak (anbulatorioa, irabazi asmorik gabeko erakundeen baliabide pribatuak, bereziki eskola sistemakoak), eta zona horretako baliabideak programari atxikitzea (Programa ezagutzea, atxikimendua, lankidetzarako konpromisoa, ...).

C. PROGRAMA EZARRI ONDOREN, BERMATU BEHARREKO BALDINTZA OSAGARRIAK

Behin Programa udalerrian ezarrita dagoenean, plangintza sistemak ezartzeari dagozkion baldintza batzuk, aipatutakoez gainera, bermatu behar dira.

Programa lehen aldiz ezarriko duten udalerri edo toki erakundeek kasuan, hezitzaileek (sei, gehienez ere) lehenengo hiru hilabeteetan komunitatearen azterketan jardungo dute (ikus plangintza sistema).

Geroago, alderdi estrategikoak eta "Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Udal Programa garatzeko Plana" eratuko dira, hezitzaileek eta Programarekin zerikusia duten Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko profesionalak (Departamentuko burua, hezitzaileak eginkizunen arabera sartutako GLUko gizarte langileak, Programarekin zerikusia duten udaleko Gizarte Zerbitzuen Zentroetako arduradunak, e. a.) hainbat lan saiotan parte hartuta.

Programa ezartzeaz arduratu den departamentuko zinegotziak eta horretarako dagoen batzordeak (eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentua Programa ezartzeaz arduratuko dena ez bada, departamentu horretako zinegotzi arduradunak, eta gizarte ongizate batzordeak) alderatu beharko dituzte alderdi estrategikoak eta udal programa garatzeko Plana.

Programa dagoeneko ezarri duten udalerri edo toki erakundeek kasuan, Programaren ebaluaketa, komunitatearen azterketa, eta alderdi estrategikoen eta "Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Udal Programa garatzeko Planaren" eraketa egingo dira Programan parte hartzeko eskaera egin aurretik, azaldu berri ditugun baldintza berberetan.

Programan parte hartzeko eskaera, bere kasuan, alderdi estrategikoak eta udal programa garatzeko Plana izango dira, eta horien eraketaren oinarriak izango dira aurreko lau urteetan egindako eskuartzearen ebaluaketa eta komunitatearen azterketa (ebaluaketa eta azterketa eskaeraren eranskin moduan aurkeztuko dira).

Amaitzeko, udal programaren arduradunak eta behar diren udaleko profesional guztiek parte hartu beharko dute Kontsortzioak derrigorrezko izaeraz ezarritako prestakuntza edo jarraipen jardura guztietan.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioaren ekarpena

Finantzaketa

Kontsortzioak ordainduko du kaleko hezitzaileen kontratazioko kostuen, eta Programak udalerrian izango dituen jarduera gastuetako kostuen % 60.

Beste euskarri batzuk

Kontsortzioak dituen eskumenen barruan, Programaren jarraipena egingo du bi urtean behin, Udal Programaren ebaluaketan oinarrituta.

Hezitzaileak kontratatzea

Kontsortzioak laguntza teknikoko zerbitzua egiten duten eta behar diren hezitzaileak dituzten enpresak kontratatuko ditu, deialdi publikoaren bitartez.

Horrela egin da Andoain, Donostia, Pasaia, Eibar, Tolosa, Zarautz eta Zumarraga herrien kasuetan.

Irun, Zumaia eta Azpeitia herriei behin behineko diru laguntza eman zaie, hezitzaileak kontrata ditzaten eta programa lehen fasean gara dezaten; beti ere, bigarren fasean beste modalitatearekin parekatzeko asmoz.

Programan esku hartzeko kontratatutako enpresaren hautaketa epaimahai baten bitartez egingo da; hurrengoak dira epaimahaikideak:

- Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioko gerentea.
- Udaleko ordezkari bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Departamentuko ordezkari bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako ordezkari bat.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko bi ordezkari.

Enpresa eskaintzaileek zerbitzua betetzeko proposatutako profesionalen profila aurkeztu beharko dute (adina, sexua, araututako prestakuntza, prestakuntza osagarria, lan eta gizarte hezkuntzan duten eskarmentua).

Proposatutako profesionalak idatzizko froga bat egin beharko dute, eta bertan hurrengo proposamenak egingo dituzte:

- Programa lehen aldiz ezartzen den kasuetan, "komunitatearen azterketa" egiteko proposamena; proposamen horren oinarriak udalerriak aldeztu aurretik egindako analisia, Programan parte hartzeko eskaeran egongo dena, eta Kontsortzioko Programa Ereduen analisia izango dira.
- Hitzarmena berritzen den kasuetan, lana garatzeko proposamena egingo dute, udal programa eta Kontsortzioko programa garatzeko plana eta Kontsortzioko Programa Eredua oinarri hartuta.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Hala eta guztiz ere, Kontsortzioak enpresa esleipenduna hautatuko du, eta egingarria bada, programan aritzeko administrazioan diharduten pertsonak edo, zehazki, hezitzaileak (Hezkuntza Saileko irakasleak, e. a.) izendatu ahal izango ditu. Hezitzaile horiek ere haien curriculumak aurkeztu beharko dute eta idatzizko frogak egin beharko dute.

Enpresekiko harremanek urtebete iraungo dute, eta luzatu ahal izango dira. Orokorrean luzapenak elkarren segidan egingo dira, udalerriak edo zerbitzua egiten duen enpresak txosten honetan aipatutako baldintzaren bat bete ezean salbu, eta Kontsortzioak eta udalerriak sinatutako hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Hezitzaileak ez dira, lanari dagokionez, udaleko langileak izango, baina, Kontsortzioak eta udalak onartu beharko dituzte lan ordutegia, jai eta oporren egutegia, e. a.

4.8.2. ZERBITZUAK EGINGO DITUZTEN ENPRESAK

Dagoeneko azaldu ditugu entitateak kontratatzeako sistema eta Programa udalerrietan ezartzeko baldintza orokorrak. Jarraian, zerbitzua egingo duten entitateek bete beharreko baldintzak azalduko ditugu:

Programa udalerrian ezartzeko baldintzen ondorio diren baldintzak

- Programa garatzea, Kontsortzioko Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Eredua eta Kontsortzioko eta Programa udalerrietan garatzeko Planek ezarritako baldintzen arabera; udal departamentuko burua eta Kontsortzioko proiektuen koordinatzailea ikuskatzaileak izatea onartzea; Kontsortzioak garatutako plangintza sistema eta tresnen ezarpena onartzea.
- Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko lan eskeman sartzeko egindako proposamenean, udalerriak aurreikusitako eginkizunak betetzea eta harremanek egitea; era berean, baliabide sistema batzuekin eta baliabideekin orokorrean egindako koordinazioari dagozkionak.
- Programa udalerrian lehen aldiz ezartzen bada, hezitzaileek beren laneko hasierako hiru hilabeteetan gutxienez, eta sei hilabetetan gehienez, komunitatearen azterketa egitea, Kontsortzioko plangintza sisteman adierazitako baldintzen arabera. Kasu guztietan, landa lan gehiena eta lan horren antolakuntza egitea, eta azterketa egitea kasu bakoitzari dagokion departamentuko buruaren zuzendaritzapean.
- Udal programaren bi urtez behingo ebaluaketako lan gehiena egitea, bereziki esku hartzeari lotutako alderdietan (kudeaketaren ebaluaketa udal Programaren arduradunaren lana da, neurri handiagoan).
- Nork bere departamentuko buruari laguntzea, udal programaren arduradun lanak eskatzen dituen eginkizunetan, eta, orokorrean, laguntza behar duen jardueretan.
- Kontsortzioak derrigorrezko izaeraz ezarritako prestakuntza edo jarraipen jardueretan parte hartzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Urtean behin, gastuen aurrekontua egitea (bere kontratazioari egozgarriak ez direnak); udalak onartu eta finantzatu beharko du aurrekontua.
- Emandako bitarte materialak eta azpiegiturak kontuz eta eraginkortasunez erabiltzea.
- Kontsortzioak, udal bakoitzak hala proposatuta, jarritako ordutegia, jai eta oporren egutegia, e. a. errespetatzea.

Enpresek bermatu beharreko beste baldintza batzuk

Zerbitzuak egiten dituen enpresak, goikoez gain, hurrengo baldintzak bermatu behar ditu:

- Hasieran proposatutako profesionalak mantentzea; horien ordeztasun beste batzuk jartzekotan (behin behineko edo behin betiko), antzeko profila izango dutela ziurtatzea.
- Profesionalen ordezkapena hiru hilabete lehenago gutxienez jakinaraztea, eta profesional berriak lanean pixkanaka hastea (aldi batez, lehengo hezitzailearekin batera lan egitea; talde eta departamentu bileretan presentzia izatea; departamentuko buruak egoki deritzon prestakuntza egitea, e. a.).
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharrak egunean edukitzea.